

/ Nabarmenezkoak

- > Olaia Inziarte "Zerrautsa" bigarren diskoarekin itzuliko da agertokietara (3. or.)
- > 43.000 euroko energia-aurrezpena udalerriko 316 puntutan argiteria publikoa berrituta (4. or.)
- > Getxo Kirolak-ek 1.297.800 euro banatuko ditu diru-laguntzetan (5. or.)



*14 Aste Santuko kirol-campusak (5. or.)

Antzerkia. Hilak 28 (larunbata), 20:00etan, Muxikebarrin, "Inmaduros", Carlos Sobera, Ángel Pardo, Elisa Matilla, Lara Dibildos, Silvia Vaca eta Arianna Aragónekin .20€.

Kontzertu didaktikoa. Hilak 28 (ostirala), 17:45ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolab, Begoña Candel trompeta irakaslearekin

A-
GENDA

Bigarren urtez jarraian, Getxok delituetan beheranzko joera sendotu du, eta herritarrenganako hurbiltasunarekin, prebentzioarekin eta modernizazio teknologikoarekin duen konpromisoa indartu du

Delitu gutxiago eta prebentzio gehiago: Getxok aurrera egin du segurtasunean

Getxok delitu kopurua murrizten jarraitzen du bigarren urtez jarraian, Udaltzaingoaren 2024ko urteko memorian jasotako datuen arabera. 2022an, 1.000 biztanleko delituen tasa 19koa zen; 2023an 17,2ra jaitsi zen, eta 2024an 16,5ean kokatu zen, herritarren segurtasuna etengabe hobetuz. Jaitsiera horri Udaltzaingoak egindako atxiloketen eta ikerketen %13ko igoera gehitu behar zaio, eta horrek lan eraginkorra eta prebentiboagoa islatzen du. 2024an, 462 jarduera egin ziren, eta 2023an, berriz, 409.

Trafiko seguruagoa eta puntu beltzik gabe

2024ko datu positiboenetako bat da ez zela hildakorik erregistratu udalerrian izandako trafiko istripuetan. Getxok aurrera jarraitzen du bide-segurtasunean, baina oinezkoen harrapaketak ugaritu egin dira, batez ere 65 urtetik gorakoetan. Indize hori murrizteko, harrapaketak prebe-



nitzeko kanpainak indartu dira.

Bizikleta bidezko mugikortasunari dagokionez, istripu tasa pixka bat igo zen, 2023an 33 istripu izatetik 2024an 46 izatera igaro baitzen. Bestalde, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuekin izandako istiluak 11tik 9ra jaitsi ziren. Gainera, nabarmendu behar da Getxok ez

duela bide-egutaren puntu beltzik, eta horrek bide-segurtasunean aplikatutako neurrien eragin-kortasuna berresten du.

Polizia hurbilagoa eta modernoagoa, segurtasunean aurrera egiteko

Getxoko Udaltzaingoak gertutasun eredu indartu du, oinezko patri-

lak nabarmen handituta, 2023an 982 izatetik 2024an 1.917 izatera igaro baitira. Estrategia horrek ahalbidetzen du kaleetan presentzia handiagoa izatea, herritarren artean konfiantza handiagoa sortuz eta edozein gorabeheraren aurrean erantzun azkarragoa emanez.

Gainera, modernizazio teknologikoan aurrera egin da, gorabeherak kudeatzeko aplikazio mugikor bat, bideowall berri bat, agenteentzako kamera pertsonalak eta ekitaldi handietako bideozaintza ezarriz. Hobekuntza horiek Udaltzaingoaren laguntza lanari gehitzen zaizkio, 2024an ustekabeko 505 eroriko artatu baitzituen, horietako asko adinekoak.

Herritarren Segurtasunerako zinetzotzi Keltse Eigurenek adierazi duen bezala, "Udalak bere bizilagunen segurtasunarekin eta bizi-kalitatearekin duen konpromisoa irmoa da. Prebentzioaren, hurbiltasunaren eta modernizazio teknologikoaren konbinazioak Udaltzaingoaren eraginkortasuna indartzen du, eta Getxo udal-erri seguru gisa sendotzen du".



Rhoda Scott



Joe Lovano



Cecile McLorin

Rhoda Scott, Cecile McLorin eta Joe Lovano & Marcin Macilewski, Getxo Jazz-ean

Getxo Jazzaren 48. edizioaren programazioa itxura hartzen ari da eta dagoeneko abonatu eskaintzaren lehen izenak ditu. Rhoda Scott organista, Cecile McLorin abeslaria eta Joe Lovano saxofoi jotzailea, Marcin Wasilewski Triorekin batera, dira uztailearen 2tik 6ra egingo den jaialdian parte hartuko dutela baieztatu duten

lehen artistak. Ohi bezala, ordainpeko kontzertuak Muxikebarrin izango dira, non izen handiek parte hartuko duten, Talde Lehiaketako banden aurretik. Getxo Kulturak datozen asteetan emango du jaialdiaren sarreraren eta abonuen salmentaren berri, eta kontzertu nagusietako gainerako figurekin batera jakinaraziko da.



MARTXOAK 20 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Bego Alabazanen "Sagu txiki, sagu maite" (euskaraz). 2-6 urte.

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Kaouther Ben Haniaren "El hombre que vendió su piel" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Liburu aurkezpena. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Miñan" (euskaraz), Amets Arzalluz eta Ibrahim Balde egileen eskutik.

Literatura solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, Edure Portelaren "Maddi y las fronteras" liburuar buruz (gaztelaniaz).

Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Actualización de asuntos jurídicos" (gaztelaniaz). Hizlaria: Olga Macía. Antolatzailea: Mugabarik-Garapen pertsonal eta komunitarioarako elkarte.

Hitzaldia. 18:00etan, Romoko San José Obrero parrokiaren, "La ruta hacia el personaje literario moderno". Hizlaria: Luisa Etxenike (idazlea). Antolatzailea: Romo-Areeta-Gizatiar emakumeen elkarte soziokulturala.

Erakusketa. Algortako batzokian, "Gure inguruko txokoak", Angel Garridoren akuarelak. Apirilaren 30era arte.

MARTXOAK 21 OSTIRALA

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Olaia Inziartek "Zer-rautsa" lana aurkeztuko du. 12€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Jonathan Glazerren "La zona de interés" (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

MARTXOAK 22 LARUNBATA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Ni flores, ni funeral, ni cenizas ni tantán" (gaztelaniaz) La Dramática Errante konpainiarekin. Zentzumen-desgaitasuna duen jendearentzako irisgarria (entzumen eta ikusmen). 12€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Iragana betikotzen", Garikoitz Mendizabal (txistua) eta Josu Okiñena (pianoa). 5€.

MARTXOAK 23 IGANDEA

Umeentzako antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Tempus" (gaztelaniaz) El que ma queda Teatrarekin. 5 urtetik aurrera. 6€.

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Dixie eta matxinada zombia" (euskaraz). 7 urtetik aurrera, 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Barriola, San Adrian azeria" (euskaraz). Adin guztiak. 2,50€.

MARTXOAK 25 ASTEARTEA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJANeren egoitzan (Juann Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat. Dohainik.

Entzunaldia. 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, ikastetxeko klarinete ikaslearen emanaldia.

MARTXOAK 26 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat. Dohainik.

Dokumental zikloa. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, Teresa Lavinaren "Las barreras, relato de dos barrios". Sarrera gonbidapenarekin.

Versadas. Poesia kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), saioa Pedro Salinas idazlearen obrari buruz.

Entzunaldia. 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, ikastetxeko piano ikaslearen emanaldia.

MARTXOAK 27 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Maite Alberdiren "La memoria infinita" (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

MARTXOAK 28 OSTIRALA

Umore ikuskizuna. 20:00etan, Muxikebarrin, "Ninini" (euskaraz) Antxon Telleriarekin. Sarre-ak agortuta.

Kontzertu didaktikoa. 17:45ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Begoña Candel trompeta irakaslearekin.

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica IV". Hizlaria: Diego de Amigo (biolinista, kompositorea eta Barakaldoko eta Gasteizko kontserbatorioetako irakaslea). Doako erreserba: info@allantica.org edo 650 69 76 27 (whatsapp).

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Win Wenders "Perfect days" (gaztelaniaz). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

MARTXOAK 29 LARUNBATA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Inmaduros" (gaztelaniaz), Carlos Sobera, Ángel Pardo, Elisa Matilla, Lara Dibildos, Silvia Vaca eta Arianna Aragónekin. 20€.

MARTXOAK 30 IGANDEA

Umeentzako antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Txan fantasma" (euskaraz) Pantzararekin. 6-9 urte. 6€.

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Sirocco y el reino de los vientos" (gaztelaniaz). Adin guztiak. 2,50€.

10 proiektu gauzatuko dira Sarrikobason, "Getxo Txukun" parte-hartze prozesuaren ondorioz

Udalak 10 proiektu egingo ditu Sarrikobaso inguruan, hainbat motatakoak, joan den urrian egindako *Getxo Txukun* prozesuaren ondorioz. Prozesu horretan, inguruko herritarrek parte-hartze handia izan zuten eta Bidezabal, Domingo Iturrate Dohatsuaren kalea, Salsidu kalea eta Ollarretzeko errepidea hartzen dituen eremuaren gaineko iradokizunak jaso ziren.

Gauzatuko diren proiektuak Udalak aurrera egin du honako proiektu hauek gauzatzeko:

- Sarrikobaso eta Bidezabal arteko barandak ordeztzea edo hobetzea.
- Elorri eta Gaztelumendi kaleen azterketa eta jarduketa, aparkaleku gehiago sortzeko, espazioa birbanatuz eta berrantolatuz.
- Sarrikobaso 20 eremuko edukiontzien kokapena aldatzea, oinezkoentzako pasabideen ikuspena hobetzeko.

- Motorrentzako aparkalekua instalatzea, horientzako espazio bat egokitzeko eta oinezkoentzako pasabideen ikuspena handitzeko.
- Inguruan dauden bankuak ordeztzea eta hobetzea.
- Bizikleta-garbitokia jartzea Ollarretxe eta Sarrikobaso elkartzaren diren tokian, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.
- Zonako iturriak berrikustea eta animalientzako sistemak dituzten berriak instalatzea eremu estrategikoetan.
- Zakarrontzien egoera berrikustea eta berriak instalatzea.
- Gaztelumendi kaleko beirazko edukiontzien ordeztzea modelo berriagoa eta irisgarriagoa jartzea.



50.000 euroko isuna San Nikolas 11ko obren sustatzaileari, hirigintzako arau-hausteagatik

Udalak 50.000 euroko zigorra ezarri dio Algortako San Nikolas kaleko 11. zenbakian dagoen eraikinetako obrak sustatzen dituen enpresari, zehapen-espeditentean aurkeztutako alegazioak ezetsi ondoren. Zigorren arrazoia da eraikinaren lau fatxadak eraitsi izana nahitaezko hirigintza-lizentziarik gabe, eta hori arau-hauste larritzat jo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 225.2 b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Udalak egindako prozesua hirigintzako beste edozein arau-hausteren prozesu bera izan da, eta modu irmo eta arduratsuan jardun du legezatasuna betetzen dela eta getxotarren esku-bideak defendatzen direla bermatzeko. Egindako arau-hausteari arau-hauste larri horietarako aurreikusitako gehieneko isuna ezarri zaio, espeditentean inguruabar larrigarri bat ikusi baita:

jarduketaren arduradunen ezagutza teknikoaren maila, eta eragindako kaltea saihesteko beharrezko neurriak ez hartzea.

Hirigintzako araudiaren arabera, arau-hauste larriak 5.001 eta 50.000 euro bitarteko isunekin zigortu daitezke. Kasu honetan, inguruabarrak baloratu ondoren, baimendutako gehieneko zenbatekoa ezarri da, jarduketaren larritasuna eta inplikaturako eragileen erantzukizuna kontuan hartuta. Zigor hori sustatzaileari, obra-zuzendaritzari, arkitektoari eta eraikuntza-enpresari ezartzen zaie.

Ebazpen horren aurrean beraztertzeko errekurtsioa aurkez daiteke hilabete bateko epean, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa bi hilabeteko epean.

Udalak hiri-ingurunea babesteko eta indarrean dagoen hirigintza-araudia betetzeko konpromisoa berretsi du.

• Edukiontzien kokalekuak berrikustea, Sarrikobaso 28-30eko ikuspena hobetzeko. Informazio gehiago: <https://zeugaz.getxo.eus/processes/Sarrikobaso?locale=eu>

LABURRAK

***Ate irekien jardunaldia Haurreskolan.** Martxoaren 25ean eta 27an, 0 eta 2 urte bitarteko haurrei zuzendutako Algortako Egunsentia haurreskolak ate irekien jardunaldi egingo ditu, zentroaren instalazioak eta funtzionamendua interesdunei ezagutarazteko. Hitzordua hartu behar da 94 657 92 93 telefono-zenbakian.

***Elkarrizketa-mahaia Gurarin.** Martxoaren 26an, 18:30ean, *Resistencias y estrategias feministas para la prevención de las violencias machistas* elkarrizketa mahaia izango da. M8a dela eta antolatuta, Peruko Manuela Ramos Emakumeen Mugimenduak parte hartuko du.

***Planetaren ordua.** Ekimen hau dela eta, eta *Itzali argia. Defendatu Planeta* lelo pean, larunbat honetan, hilak 22, Udalak ordubetez itzaliko ditu ohiko puntu eta gunetako argiak, 20:30etik 21:30era. Udalak ekimenarekin bat egitera animatzen ditu herritar getxotarrak, hain zuzen ere, udalerririk natura eta klima defendatzeko duen konpromisoa erakusteko.

***Argiak Endometriosiagatik.** Martxoaren 28ko eta 29ko gauetan, Areetako kaia eta igogailu publikoak horiz argiztatuko dira Endometriosiaren Munduko Eguna dela eta. Gaixotasun horrek eragina du zenbait emakumeren osasunean eta bizialitatean.

***Iftar Jaia.** Kulturen arteko zubiak eta Ramadana ospatzea izango da martxoaren 26an, 19:00etatik aurrera, San Martin elizako txokoa izango den Iftar jaiaren helburua. Udalaren laguntzarekin, hainbat entitatek antolatu dute ekimena. Izenematea: getxokobizilagunak@gmail.com

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



Txistu eta piano kontzertua Areetan

Garikoitz Mendizabal txistulariak eta Josu Okiñena pianistak kontzertua eskainiko dute larunbatean, martxoak 22, 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan.

Bi antzezleek *Iragana betikotzen-Perpetuando el pasado* proiektua aurkeztuko dute, musika-ondarearen berreskurapenari balioa emateko. Horretarako, Aita Donostia, Olazaran, Moreno Rivas, Garbizu, Corelli, Marais eta Ondarra musikagileen piezak eskainiko dizkigute. Lehen mailako musika da, non bikote honek bere interpretazio ahalmen guztia garatzen duen. Sarrerak 5 euro balio du.

“Descendents” dokumentala RKen

Udalak sustatutako Getxo Antirrazista Estrategiaren Gazte taldeak *Descendents* izenburuko dokumentalaren proiektua eta zurrumurruren kontrako ondorengo solasaldia antolatuko ditu, beste batzuetan bezala hainbat entitatekin laguntzarekin, datorren larunbaterako, martxoak 22, bezperan Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta. Doako proiektua 12:00etan hasiko da Romo Kultur Etxean, eta bertaratu nahi duten pertsonak grupogar aisibia@aisibia@gmail.com helbide elektronikoaren edo 747 49 41 22 telefono zenbakiaren bidez eman ahal izango dute izena.

Judit Aranda Moreno eta Carlos Collazos Rodríguez zuzendariak egindako lanak Kataluniara heldutako migratzaileen ondorengo katalanen nortasun propioaren etengabeko bilaketa erakusten du, baita bizi izandako ezbeharrak eta errealitate horri eraldatzeko duten gaitasuna ere, desberdinari balioa emanez.

Olaia Inziarte “Zerrautsa” bigarren diskoarekin itzuliko da agertokietara

Olaia Inziarte abeslari nafar gazteak kontzertua eskainiko du Muxikebarrin ostiral honetan, hilak 21, 21:00etan, bere bigarren diskoa aurkezteko: *Zerrautsa*. Emanaldi honekin, Euskal Herriko hainbat tokitara bidaiatuko duen bira hasiko du. Sarrerak 15 euro balio du. *Lehen Lepotikan Burua* bere estreinako albumaren inpaktuaren ondoren, zeinak duela bi urte musika astindu baitzuen, Olaia Inziarte askapen prozesu batean murgildu zen disko berriarekin, eta hauskortasunari, sendotasunari eta eraldaketa pertsonalari buruzko soinua hausnarketa bat aurkeztu zion publikoari. Bere konposizio berrien bidez, bizitzaren etapei eta gizakiak igarotzen duen etengabeko bilakaerari buruz hausnartzerara gonbidatzen du. 14 konposizio dira, publikoari bidaiata intimo eta eraldatzailea eskaintzen diotenak.



“Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantán” eszenara

María Goiricelayak eta Ane Pikazak osatutako La Dramática Errante taldeak *Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantán* obra berria taularatuko du Muxikebarrin. Larunbatean, hilak 22, 20:00etatik au-

rrera, Donejakue bidean kokatzen gaituen obra hau antzeztuko dute, gaztelaniaz, zainketa aringarriez eta “on hiltzeaz” hitz egiteko. Ane Pikaza, Aitor Borobia, Loli Astoreka, Patxo Telleria, Egoitz Sanchez

eta Idoia Merodiok osatzen dute taldea. Obra irisgarria da: ikuslariak desgaitasun sentsoriala duten pertsonentzat eta haien laguntzaileentzat gordetako besaulkiak izango ditu. Sarrera: 12 €.

“Tempus”, 5 urtetik gorakoentzako haurrentzako antzerkia

Igandean, hilak 23, haurrek Muxikebarrin dute hitzordua antzerki ikuskizun berri batekin. 18:00etatik aurrera, El Que Ma Queda de Teatre konpainiak *Tempus* lana taularatuko du. Klaus erlojugilea du protago-

nista, eta bere lan espazioa bisitatzera gonbidatzen ditu, non, bitxia bada ere, denbora gelditu dela ematen duen eta bera kuku-orkestra berezi baten zuzendaria den. Dibertigarria eta samurra da, eta erlojuen tik-tak

erritmoan eta piano-jotzailearen musikaren erritmoan mugitzen da, gaur egun ez dugun denboraren ikuspegi poetikoa eskaintzeko. Denbora falta zaigu. Eta gehiago izango bagenu, gehiago nahiko genuke. Sarrera: 6 euro.

Getxophotok bere programazioaren zati bat ezagutzera eman du

Imagen-Getxophotoko Nazioarteko Jaialdiak (maiatzaren 29tik ekainaren 22ra) programazioaren zati bat aurreratu du. *Itxialdia* elkarrizketa-gunea Punta Begoñako galerietan egingo da, maiatzaren 31n, larunbata. Oraingoan, egunero bonbardatzen gaituzten irudi oldearen aurrean immune



bihurtzen ari ote garen galdetzeko pentsatutako programa bat aurkeztu du. *Hamaiketako* gosari tradizionalak ere egongo dira, sektoreko profesionalekin, eta, Herri Partaidetza atalerako, publikoak apirilaren 4ra arte bidali ahal izango ditu bere argazkiak. www.getxophoto.com

Serie bat filmatzeak eragina izango du Areetan

Martxoaren 28tik apirilaren 29ra, Bizkaia Zubia plazaren eta Abrako Itsas Klubaren inguruan eragina izango dute aparkaleku-guneak erreserbatzeak eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako mozketak puntualak, Katherine Zeta-Jones aktore galestarra protagonista duen Prime Video plataformarako telesail bat filmatzearen ondorioz.

Hala, martxoaren 28tik apirilaren 14ra, afektazio-eremua Bizkaia Zu-

biaren ingurua izango da, batez ere Paulino Mendibil eta Evaristo Churruca kaleak eta plazarako sarbideak. Apirilaren 9an Bizkaia Zubia plazaren kanpoaldean filmatuko da lanaldi osoan, eta, beraz, pertsonen eta autoen trafikoan eragina izango dute aldizkako mozketek.

Apirilaren 26tik 29ra filmaketa Abrako Itsas Klubean, kaiko pasealekuan eta ondoko kaleetan kokatuko da: Barria Arietarekin, Jose Luis

de Ugarte eta Zugatzarte. Udaltzaingoak inguruko segurtasuna zainduko du, eta herritarrei ahalik eta eragozpen gutxien eragitea.

“Kill Jackie”

Kill Jackie telesaila hasi da dagoneko Bizkaiko hainbat agertokitan filmatzen. Mendekuari buruzko thriller bat da, Nick Harkawayren eleberri batean oinarritua, eta Katherine Zeta-Jones aktore eza-guna du protagonista.



43.000 euroko energia-aurrezpena udalerriko 316 puntutan argiteria publikoa berrituta

Udalak 265.000 euroan esleitu du Algorta, Neguri eta Andra Mari auzoetan bide publikoko argien ordeztu energia-eraginkortasun eta aurrezpen handiagoko LED argiak jartzea. Jarduerak 316 unitate berritzea aurreikusten du, urtean 43.000 euro aurrezteko ekarriko du gastu arruntean eta %80 aurrezteko energia-kontsumoan.

Aipatutako jarduerarekin batera, Algortako hainbat kaletan LED ekipoekin (argi zuriagoko luminariak, eraginkorragoak) ordeztu ari da 45 luminarietako lanparak akituta baitaude. Izan ere, egungo luminarietako puntu bakoitzeko 125 euro aurreztuko dira urtean kontsumoan. Horri, 2,5 urtean behin aldatu behar den aurreko pizte-ekipo eta lanpara bakoitzak balio duen 160 euroei gehituz gero, puntu bakoitzeko inbertsioa urtebetean amortizatu da; kontsumo elektrikoan %60 aurreztuz. Algortako argi-puntu horiek aldatuta bakarrik, urteko 9.000 euro aurreztuko dira.

Luminariaren puntu berri bakoitza urtebetean amortizatzeaz gain, hiru lanpara aldatzea ere aurreztuko dira eta datozen 20 urteetan ez dira argi berriak aldatu behar.

Lehen jarduketa horren ondoren, apirila eta maiatza bitartean beste 45 argi berritzen jarraituko da Algortako beste eremu batzuetan (Bidezabalek Euskal Herriraino).

Hurrengo jarduerak eta lizitazioak
Bitartean, Udalak Areetako Santa Ana auzoan 152 luminaria berritzeko lanak esleitzeko prozesuarekin jarraitzen du. Jarduketa horren ondorioz, energia-kontsumoan eta gastu arruntean %47,38 aurreztuko da, eta elektrizitatearen fakturan 15.300 euro aurreztuko dira urtean. Aurreikuspenen arabera, lanak amaituta egongo dira aurtengo udako lehen tarterako.

Bestalde, laster lizitatuko da 375 bide-argiren hornidura, eta horrek ekarriko du, era berean, faktura elektrikoan 61.593 euro aurrezteko urtean.

Lurpeko edukiontzien berritzea

Torrene, Juan Bautista Zabala eta Bidezabal kaleetan dauden lurpeko edukiontzien instalazio elektromekanikoak ordeztu ari da Udala, zehazki, udalerriko zaharrenak, 15 urte baino gehiago baitaramatzate zerbitzua ematen. Erabat berrituko dira, ekipoetan fidagarritasun handiagoa lortzeko, matxuragatik zerbitzuz kanpo emandako denborak ezabatuz; eta horrela, usain txarrak sortzea

Udalak 2025erako zerga-egutegia onartu du

Udalak 2025eko zerga-egutegia onartu du, eta dagoeneko baditu epeak honako zerga hauek ordaintzeko: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen (TMIZ) eta Ondasun Higiezinaren (OHZ) Zergak, ibilgailuak lursailen barrura espaloien bidez sartzegatik eta aparkaleku-erreserbategatik ordaindu beharreko tasak (IBIAK), auto-TAXIEN aparkalekua erreserbatzeagatik eta bide publikoak okupatzegatik ordaindu beharreko tasak: kioskoak, ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzegatik (TAO txartelak), kutxazain automatikoak eta terrazak.

Helbideratu gabeko ordainagiriak. Borondatezko ordainketa epea: ekainaren 2tik uztailaren 18ra.

Helbideratutako ordainagiriak. Helbideratutako kobrantza ekai-



naren 30ean egingo da. Ekitaldi honetarako banku-helbideratzea eskatzeko edo aldatzeko epea apirilaren 16an amaituko da, eta helbideratze hori baliogabetzeko epea ekainaren 20an amaituko da.

“Nahierako Ordainketa” aukeraren ordainagiriak. Helbideratutako ordainketa ondorengo epeetan egingo da:

- 4 epeko aukera: ekainak 2, uztailak 2, irailak 16 eta azaroak 11.
- 2 epeko aukera: ekainak 2 eta irailak 16.

Eskaerak *Nahierako Ordainketaren* bidez ordaintzeko eta ekitaldi honetarako epean aukerei lotutako aldaketetarako apirilaren 16ra arte egin ahal izango dira.

Banku-kontua aldatzeko eskaerak ekitaldi honetarako izango ditu ondorioak, baldin eta adierazitako *Nahierako Ordainketa* modalitatearen hurrengo epea amaitu baino gutxienez 10 egun natural lehengo aurkezten bada.

“Getxoko fauna basatia”, marrazki lehiaketa

Basa-bizitzaren Mundu Eguna dela eta, Ingurumen Aretoko marrazki lehiaketa bat antolatu du. Gaia da *Getxoko fauna basatia* eta edozein motatako animalia basatiak irudika daitezke. Bi kategoria ezarri dira: 4-9 urte eta 10-15 urte, eta bietan pintura-maletatxoak izango da saria.

Marrazkiak martxoaren 31a baino lehen bidali behar dira info@ingurumenaretoagetxo.eus helbidera, izena, adina eta telefono zenbakia adieraziz. Argibide gehiago: www.ingurumenaretoagetxo.eus eta tel.: 688 883 596.



Euskaraldiari buruzko sentsibilizazio saioak

Euskaraldia ezagutzera emateko, hizkuntza-ohiturei buruz hausnartzeko eta euskararen aldeko jarrera proaktiboa bultzatzeko, Euskaraldiari buruzko sentsibilizazio saio batzuk abian jarri dituzte udalerrian DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketa euskaraz eskaintzen duten zortzi zentroetan. Getxon Euskaraldiaren antolakuntza sustatzen duen batzordeak (Udalak, eta Egizu eta Bizarra Lepoan elkarrekin osatuta) antolatuta, guztira, 553 ikasle hartuko dute parte. Saiotan beraientzat erreferenteak diren pertsonen hitz egingo dute gazteekin, hain zuzen ere, Kai Nakai abeslariak eta Anartz Duandikoe-txea *El Conquis* saioaren aurreko edizioko partaideak Aixerrota institutuan eta Azkorri ikastetxean; Jon Gomez musikariak Santissima Trinidad eta Divino Pastor ikastetxetan; Arene 6 taldeak San Nikolas ikastolan eta J.C.Baroja institutuan, eta La Basuk Fadura eta Artatza-Romo institutuetan. Bestalde, Udalak eta erakunde autonomoek (Getxo Kulturak, Getxo Kirolakek eta udal egoitzak) entitate gisa eman dute izena ekimenean. Informazioa eta inskripzioa: <https://getxoztarrak.eus/euskaraldia/>

14 ASTE SANTUKO KIROL-CAMPUSAK

Antolatzailea	Programa	Adina	Egunak eta orduak	Prezioa	Kontaktua
Getxo Gimnastika Kluba	Gimnasia erritmikoarekin loturiko jarduerak Faduran	6/14 urte	Apirilaren 14tik 25era. 9:00-14:00	63/84€	club_ritmica_getxo@hotmail.com 685 545 032
	Psikomotrizitatea eta umeentzako jolasak Faduran	3/5 urte			
Getxo Saskibaloia Taldea	Saskibaloia Faduran	4/14 urte	Apirilaren 14tik 25era. 8:30-14:30	35/175€	campusgetxosaski@gmail.com 657 773 523
Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkartea	Igeriketa, kirol anitza eta tailerrak Faduran	4/12 urte	Apirilaren 14tik 25era. 8:30-14:30	75/160€	info@getxoiw.com www.getxoiw.com
Getxo Atletismoa	Atletismoa Faduran	6/14 urte	Apirilaren 14tik 25era. 9:00-13:30	45/120€	getxoatletismoa@gmail.com 688 698 882
Romo F.C. eta Arenas Club Fútbol	Futbola Gobelan	5/13 urte	Del 14 al 25 de abril. 9:00-14:00h	75/160€	eventos@romofc.com 657 268 606
Getxo Azkarrenak Iristaketa Kirol Kluba	Iristaketa linean eta multikirolak Gobelan	3/12 urte	Apirilaren 14tik 25era. 9:00-14:00	35/175€	campus@getxoazkarrenak.com 662 940 436
Getxo Futbola Fundazioa	Futbola Faduran	5/14 urte	Apirilaren 14tik 25era. 9:00-14:00	90/200€	kanpusa@getxofutbola.com 656 708 299
Haszten Elkartea	Campus inklusiboa eta egokitua	12/25 urte	Apirilaren 14tik 25era. 9:00-14:00	25/30€ eguneko	gorka.haszten@gmail.com 747 404 358
Getxo Show Iristaketa Kluba	Iristaketa eta ingelesa Andra Marin	4/14 urte	Apirilaren 14tik 25era. 8:30-13:30	25€ eguneko	info@cshowgetxo.com 615 501 624
Getxo Iristan Kirol Kluba	Hockey patinak eta irristaketa-rako hastapena Faduran	4/12 urte	Apirilaren 14tik 25era. 8:30-14:30	50/70€	klub@getxoirristan.com 670 733 824 / 622 593 057
Romoko Eskubaloia Kluba	Eskubaloia Gobelan	8/14 urte	Apirilaren 14tik 25era. 9:00-14:00	150€	club.balonmano.romo@gmail.com 669 163 245
Punta Galea Txirrindularitza Elkartea	Txirrindularitza eta BTT Faduran	4/14 urte	Apirilaren 22tik 25era. 8:30-14:00	95€	prensapuntagalea@gmail.com Tfno.: 674 995 470
Pakea Getxo Bela Eskola	Bela Kirol Portuan	6/14 urte	Apirilaren 14tik 25era. 9:30-14:00 16:00-18:00	130/140€	info@pakea.info 634 405 624



Dagoeneko zabaldu da eskaerak aurkezteko epea

Getxo Kirolak-ek 1.297.800 euro banatuko ditu herriko klub eta kirolarientzako diru-laguntzetan

Getxo Kirolak-ek herriko klub eta kirolariek aurtengo diru-laguntzak eskatzeko epea ireki du. Guztira, 1.297.800 euroko laguntzak emango dira, hau da, iazko zenbateko bera. Diru-laguntza horien helburua da klubei eta elkartei laguntzea oinarritzako kirola eta kirol federatua sustatzera bideratutako jardueratik eratorritako ordainketei aurre egiten, bai eta banakako lehiaketetan parte hartzen duten errendimendu handiko tokiko kirolariei ere.

Modu horretan, diru-laguntza honela banatuko da: oinarritzako kirolak 260.000 euro jasoko ditu; lehiaketako jardueren eta errendimenduko kirolaren artean 735.000 euro banatuko dira; ekitaldiak antolatzeko 220.000 euroko diru-laguntza izango da; herri kirolak sustatzeko 54.000 euro izango dira; eta emakumeen kirola sustatzeko beste 25.000 euro bideratuko dira. Era berean, aurrei-

kusi gabeko lehiaketetan parte hartzeko 1.000 euro emango zaizkie interesatuta dauden elkartei; 500 euro erreserbatuko dira muturreko kiroleko modalitateetan parte hartuko duten kirolarientzat; eta, azkenik, 2.300 euroko laguntza emango da herriko jaietan antolatutako kirol-ekimenaren bat bultzatzeko.

Laguntza horiek guztiak emateko hainbat balorazio-irizpide bete behar dira, eta, horien artean, ondorengoak nabarmen-tzen dira: emakumeen kirola sustatzea, euskara sustatzea eta elkarteak udalerriko kirol-politikan inplikatzeko eskola-kiroleko programen bitartez.

Klubek eta pertsona interesdu- nek Getxo Kirolak-en webgunean kontsulta ditzakete deialdi honi buruzko oinarriak eta eskabideak aurkezteko beharrezkoa den dokumentazioa.

Getxo Atletismo Klubak korrika egiteko talde bat antolatu du afizionatu mailako helduentzat

Getxo Atletismo Klubak helduentzako korrika taldea antolatu du. Ekimen honekin klubak atletismo-ra hurbildu nahi ditu, lehiaketa federatuen eskakizunetatik urrun, herri-lasterketetan parte hartzea edo euren kabuz korritzea gustatzen zaien pertsona guztiak.

Klubeko teknikari batek gidatutako taldean izena emateak 40 euroko prezioa du hileroko, eta entrenamenduak astearte eta ostegunetan izaten dira, 19:30ean, Faduran. Getxo Atletismo Klubak helduentzako entrenamendu pertsonalizatuak ere eskaintzen ditu, hilean 60 euroan. Halaber, larunbatetan doako irteera bat antolatzen dute,



nahi duenak taldean korrika egin dezan, 10:30etik aurrera.

Korrika talde berri honetan parte hartzeko interesa duten pertsonak inforun@cagetxo.com helbide elektronikoaren bidez jar daitezke harremanetan klubarekin.



Sare Acero, gimnasia erritmikoko Euskadiko txapeldunordea

Getxoko Club Gimnástico taldeko Sare Acero gimnastak (argazkian, ezkerrean) zilarrezko domina lortu zuen pasa den martxoaren 8an Gasteizen jokatutako Euskadiko Oinarritzako Txapelketan. Bigarren postu honekin, gainera, Getxoko klubeko gimnastak apirilaren 10ean Guadalajaran jokatutako den Espainiako Txapelketarako txartela lortu zuen. Bestalde, Joana Ruiz de Aguirrek, hau ere Getxoko Gimnástico Klubekoa (argazkian, Sareren ondoan), zortzigarren sailkatu zen, eta horri esker Espainiako Txapelketan ere izango da.

Udal talde politikoaren iritzia



INGURUNE NATURALA ERRESPELATZEKO KONPROMISOA

Udaberria heltzeaz dago, eta badirudi egunak luzatzen direnean eta argia eguneroko protagonista bihurtzen denean, guk ere Getxon gozaten dugun ingurune naturalarekiko dedikazioa eta gozamen nabarmenak ditugula.

Duela ia bi urte, Getxoko herritarrekin egin genuen hauteskunde-itunean, EAJk mugikortasun jasangarriarekin eta ingurune naturalarekiko errespetuarekin dugun konpromisoa nabarmendu genuen. Eta ekintza zehatz batzuk aipatu genituen berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko, batzuk dagoeneko martxan daude eta laster bukatuko dituzte; beste batzuk, berriz, tramitazio luzea eta neketsua dute, baina laster iritsiko dira: hiri-erdiguneak erdi-oinezko egitea (Areetako Kale Nagusia eta haren ingurune osoa, adibidez); Mesedeetako aparkalekua handitzeko proiektua; alo-

kairuko bizikleta elektrikoaren Bizkaibizi sistemaren erabilera bikainari zerbitzua emango dioten bidegorri berriak (Getxo liderra da erabilera); Eta noski, ingurune naturala errespetatzeko konpromisoa, HAPOan Azkorriko birika naturala zainduta eta ekonomia zirkularrekin konprometituta: murriztu, birziklatu eta berrerabili Larrañazubiko Biolehorte-Plantaren bidez.

2023ko Agenda, Ekintza Plan berriarekin; eskola bide seguruak; Urkixobasotik mazelak egonkortzen jarraitzea beheko zonan eta Ereaga kaiko eta Usategi parkeko ezpondetan; eraginkortasun energetikoaren etengabeko hobekuntza argiteria publikoaren sarean kontsumoak murrizteko; Bidezabaleko arrapala guztiak berritzea (hastear dago), baita Salsiduko arrapalak ere, behin eta berriz honda ez daitezzen, eta konponketa Ge-



txok merezi duena izan dadin.

Ingurumenarekiko gure konpromisoak aintzat hartu izan dira, hala nola



Getxori emandako AsteKlima 2024 saria, Euskadiko Klimaren eta Energiaren Astean lurralde historikoetako tokiko erakundeek bultzatutako ekimen onena izateagatik.

Getxoko EAJk betetzen dituen konpromisoak.



AREETAKO ETA SANTA ANAKO OBREK KALTETUTAKO BIZILAGUN ETA DENDENTZAKO TAO ETA TASAK MURRIZTEA

2024ko irailetik **Areetan eta Santa Anan** egiten ari diren lanek eragin handia izan dute inguruko mugikortasunean eta jarduera ekonomikoan. **Luis Lopez Osés kalean, Kale Nagusian eta Maximo Agirre kalean** aurrera egin ahala, auzokide eta merkatariei gero eta gehiago eragiten diete aparkaleku faltak, trafikoko murrizketek eta oinezkoen joan-etorrien murrizketak. Lan horiek, gutxienez, 2025eko uztailean arte luzatuko direla uste da. Bitartean, zonaldeko bizilagunek TAO tasa

ordaintzen jarraitzen dute (**50 eurotan finkatua**) eta ezin dituzte **aparkalekuak erabili**. Gainera, dendari eta ostalariei espaloiak estutzeko lanek eta beste muga batzuek eragiten diete, eta ez dute Udalarengandik inolako ordainik jaso. Honen aurrean, kaltetuentzat **TAOren tarifa % 50 murrizteko exijitzen dugu, baita kalteturiko negozioentzat terraza eta zaborren tasetan hobariak emateko ere**. Espero dugu gainerako alderdiek ekimen hori babestuko dutela **martxoko osoko bilkuran**.



ehbildu

GETXOKO ONDAREA ERAISTEA OSO MERKEA DA

Joan den astean jakin genuen zein isun jarriko dion Getxoko Udalak Algoran Irurak Bat jauregitxoan modu irregularrean eraitsi zuen enpresa eraikitzaileari: 50.000 euro, kopuru lotsagarria gertakarien larritasuna kontuan hartuta (ondare historikoaren galera konponezina, eraitsi behar ez zen fatxada osoa eraistea, etab.). Eraistearen ondorio bakarra isun hori bada, argi dago eraikuntza-enpresentzat konpentsatu dezakeela legea urratzea, isuna bere gain hartzea, eta, ondoren, eraiki, eraikuntza berrietarako inolako "oztoporik" errespetatu

behar izan gabe. Kontua ez da, beraz, Irurak Bat ekimenarekin gertatu denari bakarrik begiratzea, etorkizuneko hirigintza jardueretarako mezua ere izan baitaiteke: legea urratzeak ez du ondorio handirik izango, merezi du egiteak.

EH Bilduk presio egiten jarraituko du egoera hau berriro gerta ez dadin eta erantzukizunak argitu daitezzen. Getxoko Udala auzi honetan herri-akuzazio gisa pertsonatzen saiatu gara, baina gure proposamena ez da aurrera atera EAJ, PP eta PSEren babes

faltagatik. Gobernu Taldeak, garden-tasunez jokatu eta dituen datu guztiekin gai honetan zer gertatu den azaldu beharrean, oztopoak jartzen eta informazioa ezkutitzen jarraitu du. Gobernu Taldearen borondaterik eza ikusita, EH Bilduk fiskaltzaren esku utzi zuen dokumentazio guztia, lege kontraktorik egin ote den erabaki zezan. Ikusiko dugu azkenean zertan geratzen den kontu hau.

Baina berriro diogu: Irurak Bat kasuarekin gertatutakoa konponezina da, baina baldintzak sortu behar ditugu

etorkizunean berriro gerta ez dadin. EAJk, PPK eta PSEk behin-behinean onartutako HAPO berriak eraikin historiko ugari eraisten jarraitzea planteatzen du: dozenaka baserriri (horietako askotan bizilagunak bizi dira) babesa kendu zaie higiezinaren espekulazioari bide emateko. Irurak Bat eraikinaren kalean bertan, eraiste gehiago aurreikusten dira. Eusko Jaurlaritzak berak ere ohartarazi dio Udalari egoera horretaz, baina Udal Gobernuak oraingoz entzungor egiten jarraitzen du. Presioa egiten jarraituko dugu. Info getxo.ehbildu.eus



KONPROMISO SOZIALISTA ONDAREAREKIN ETA KULTURAREKIN



IRURAK BAT

Getxon, **Carlos García** Espainiako Gobernuak Bizkaian duen **ordezkariordearen** bisita izan dugu. **Carmen Díaz** gure **bozeramailearekin** batera, **Punta Begoñako galerietan** izan zen, **martxan dagoen berreskuratze-proiektua** bertatik bertara eza-gutzeko. Ekimen honek aurrera jarraitzen du **Pedro Sánchezen** **Gobernu Sozialistaren** babes finantzarioari esker, zeinak, **"2 % Cultural"** programaren bitartez, **770.000 € emango baititu bigarren fase honetan**. Inbertsio hori **2019an lehen fasean emandako 500.000 €** baino gehiagori gehituko zaie, Getxoko ondare historiko eta kulturala kontserbatzeko konpromisoa berresteko.



Getxon udal-ondarea eraistea merke da. Udalak 50.000 €-ko isuna jarri dio Irurak Bat eraikin babestua behera bota zuen enpresa-sustatzaileari. Eraisteko lizentziarik ez zutela besterik ez dute aintzat hartu, ez elementu babestua zela. Borondatezko ordainketan, zigor hori 32.000 €-tan geratuko da, oso larritzat jo izan balute ezarri beharko lituzketen 500.000 €-etatik urrun.